

**EEPF**Euskadiko Euskal  
Pilota Federakuntza**Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza.**  
**Federación de Pelota Vasca de Euskadi.**

Teléfono: 94.681.81.08 / 665.764.881 / Email: info@eepf.org / Astola 26 Abadiño 48220

## **2023ko EHko ESKUZKO HERRIARTEKO TXAPELKETAKO FINALERDIAK JOKOAN ZUMARRAGAN**

Larunbat eta igande honetan goizeko 11:00etatik aurrera 2023ko EHko Eskuzko Herriarteko txapelketaren finalerdiak jokatuko dira Zumarragako Beloki pilotalekuan.

Larunbateko finalerdian Laguardia eta Oiartzun herriak arituko dira aurrez-aurre. Aurtengo Gipuzkoako txapelduna da favorito baina Arabako txapelduna den Laguardiak ez dizkio gauzak errez jarriko.

Igandeko finalerdia airean egon da azken momentu arte, aurtengo edizioko Nafarroako txapelduna erabaki gabe dagoelako. Atzoko egunean, Nafarroako Euskal Pilota Federakuntzak, Nafarroa, Leitzako herriak ordezkatu zuela adierazi zuen momentuz bere txapelketako finalera sailkatutako herri bakarra dela argudiatuz. Hori dela eta, igandean Markina-Xemein eta Leitza herriak arituko dira nor baino nor eta oso finalerdi irekia aurre ikusten da. Kadete kategorian Leitza izan daiteke favorito eta gazte kategorian aldiz Markina-Xemein. Aurre ikuspenak betetzen badira, nagusi kategorian erabakiko da aurtengo bigarren finalista.

Finalerdietako garaileak uztailaren 23an goizeko 11:00etatik aurrera jokatuko dute final handia Zumarragako Beloki pilotalekuan eta jaialdia ETB4 katetik zuzenean emango da.

## **LAS SEMIFINALES DEL TORNEO INTERPUEBLOS EH DE MANO 2023 EN JUEGO EN ZUMARRAGA**

Este sábado y domingo a partir de las 11:00 de la mañana se disputarán las semifinales del Interpueblos de Mano de EH 2023 en el frontón Beloki de Zumarraga.

La semifinal del sábado enfrentará a las localidades de Laguardia y Oiartzun. El campeón de Gipuzkoa de este año parte como favorito, pero Laguardia, campeón de Álava, no le pondrá las cosas fáciles.

La semifinal del domingo ha estado en el aire hasta el último momento, ya que el campeón navarro de la presente edición está sin decidir. En la jornada de ayer, la Federación Navarra de Pelota Vasca señaló que Navarra sería representada por el pueblo de Leitza con el argumento de que de momento es la única localidad clasificada para la final de su campeonato. Por ello, el domingo se enfrentarán las localidades de Markina-Xemein y Leitza y se espera semifinal muy abierta. En la categoría cadete, Leitza podría ser la favorita y en la categoría juvenil, Markina-Xemein. Si se cumplen las expectativas, el segundo finalista de este año se decidirá en la categoría senior.

Los ganadores de las semifinales jugarán la gran final el 23 de julio a partir de las 11:00 de la mañana en el frontón Beloki de Zumarraga y el festival se emitirá en directo desde ETB4.